



SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN
ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA
2018ko IRAILAREN 25a

Santurtziko Udaletxeko Bileraren aretoan aipatutako datan goizeko hamar eta erdietan bildu da, horretarako alde aurretik Presidente jaunak hala deituta, ohiko bilera Erakunde Autonomiadunaren Artezkaritza Kontseilua eta ondorengoak agertu dira:

Kontseiluburua: Danel Bringas Egillor jn.

Bokalak:

Cristina Senarriaga Rojo and. Euzko Abertzaleak Udal Taldea
Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn. Euzko Abertzaleak Udal Taldea
Ivan López Arenas jn. Euzko Abertzaleak Udal Taldea
Endika García Sáez jn. EH Bildu Udal Taldea.
Pedro Miguel Lucena Balda jn. Sozialistak Udal Taldea.
Luis Angel Urdiales Villanueva jn. PP Udal Taldea
Jonatan Sánchez Fernández jn. Atxiki gabeko zinegotzia

Kontu-hartzailea: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Autonomiadun Erakundearen zuzendaria: Cristina García Pérez and.

Idazkari eskuordea: José Fernando García Pañeda

Saioari hasiera eman dio Presidente jaunak deialdiko gai-ordenan dauden gaiak aztertzeko.

1. SUEren ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN 2018ko UZTAILAREN 24ko OHIKO BILERAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Bilerari dagokion akta alde aurretik bidali denez, ez da bertan irakurri eta Kontseiluburu jaunak bozketari ekin dio.

Artezkaritza Kontseiluak, atxiki gabeko zinegotziaren eta EH Bildu Udal Taldeko ordezkariaren abstentzioekin, onartu egin du Artezkaritza Kontseiluaren 2018ko uztailaren 24ko bilera akta.

2. KURTSO HASIERAKO DATUEN BERRI EMATEA.

Ikasturte hasierako behin behineko datuak alde aurretik bidali dira.

Debatearen ostean, Kontseilua gai honi buruz jakinaren gainean geratzen da



3. PREZIO PUBLIKOAK ETA ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETAREN PROPOSAMENA ONARTZEA HALA BALEGOKIE.

Matrikulazio datuak aurretik bidalita daude

Debataren ostean, Kontseiluburu jaunak bozketari ekin dio.

Artezkaritza Kontseiluak, Euzko Abertzaleak udal taldeko aldeko botoekin, atxiki gabeko zinegotziaren eta EH Bildu Udal Taldeko ordezkarien kontrako botoekin eta Sozialistak Udal Taldearen eta PP Udal taldearen abstentzioekin, onartu egin du prezio publikoak eta ordenantza fiskalak aldatzea.

4.-SANTURTZIKO UDAL EUSKALTEGIA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN BERRI EMATEA.

Kontseiluburu jaunak Euskaltegiak Hizkuntza Eskolarekin gastuak partekatzeko dituen aukeren berri eman du.

5.-. GALDERA ETA ESKARIAK

Sánchez jaunak hurrengo galderak egin ditu:

- Hurrengo urteko aurrekontuei begira egin beharreko lanak zeintzuk diren.
- Irakasleek zenbat opor duten eta udan zer egiten duten ikastaro trinkorik ez badago.

Lucena jaunak irakasleen lanaldiari buruz galdetu du, ea lan-egutegia nola betetzen duten.

García jaunak iguerak guztira zenbat suposatuko duen galdetu du, eta zertan erabiliko den.

Kontseiluburu jaunak galdera guztiei erantzuna eman die.

Saioaren grabazioa hurrengo helbidean dago:

<https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/xMT9b1S92pt0dQU>

Eta akta helbide honetan aurkitu ahal da:

<https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/rfbX34ODD8sqw08>

Ez dago aztertzeko beste gairik eta bukatutzat eman du Presidente jaunak goiburuko eguneko hamaikak eta bostean. Horren guztiaren fede ematen dut, Idazkari eskuordea naizenez.

Presidentea
D. Danel Bringas Egilior

Idazkari eskuordea
José Fernando García Pañeda